

Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko urtarrilak 15 / III. urtea / 58. zenbakia

Metropoli forala

Erromes urtea

Donejakue Urte honetan, milaka erromesek zeharkatuko dute alderik alde Nafarroa, Orreaga edo Esatik sartu eta Bianara heldu arte. Santiago buruan dutela, Donejakue Bidea egiten dutenek aspaldian gainditu zuten zio erlijioso hutsa, eta kulturak eta kirolak berak pisu handiagoa omen daukate egun. Orreagan bereziki prestatzen ari

dira urte berezi honetarako, eta Nafarroako Gobernuak ere egitasmo ausarta burutzeko asmoa dauka Bidea indartzeko.



FELIPE RIUS

Beheko dendako alarmak esnatzen nauenean, leihora hurbiltzen naiz eta goizaldean kalean dabiltzan pertsonaien erretrato robotak egiten saiatzen naiz aurpegi horiek gero ametsetan azalduko zaizkidala jakin arren. Ordu hauetan hiriak beste itxura bat hartzen du eta batzutan beste nonbaiten egongo bainintzan sentitzen naiz, agian alarmak erabat esnatu ez naudelako eta ametsa eta errealtatea bereitzen dituen muga horretan nabil ohartu gabe.

Hasiera batean, zarata nire belarrietara iritsi denean, aterpe antiaerorantz lasterka ateratzea izan da burura etorri zaidan lehenengo erreakzioa —'Hazañas bélicas' izeneko tebeo gehiegi irakurri nituen txikitari nonbait—, baina berehala oroitu naiz. Lehenengo Munduan bizi naizela, hiri paketsu eta harro batean, eta oraindik inork ez duela munduaren amaiera iragarri. Alarma alu horietako bat bakarrik izan zitekeen, eta gainera ez zirudien isiltzeko asmorik zuenik. Horregatik, altxatu naiz, zigarro bat piztu dut eta kalean dabiltzan pertsonen fitxa mentalak egiteari ekin diot alarmarena munipei salatzea txorrada bat dela pentsatuz.

Gizon bat pasatu da zialdoka leihoaren aurretik. Ez da harrizkekoa izaten ordu honetan mozkortiren bat ikustea, baina honi zerbait arraroa antzeman diot. Sánchez Ostizen 'Las pirañas' nobelaren protagonista etorri zait momentu batez gogora eta irrifartsu esan diot nire buruari iruinsheme harropuz guztiek irakurri beharko lukeetela antidoto gisa. Agian beren burua ere aurkitu lezakete orrialdeetan.

Bapatean gizona, foko bat bailitzan farola baten azpian jarriz, jiratu egin da, neri begira glditu da —hala iruditu zait behinik behin— eta besoak mugituz por culo hartzera bidaltzeko keinua egin du. Alarmaren hotsa estridenteagoa egin da eta orduantxe lehenengo bonbaren eztanda sentitu dut. «Hau putada, gaur gauean ezin izango diat lorik hartu», pentsatuz, 'Denbora galduaren bila' obraren tomo guztiak hartu ditut eta aterpera abiatu naiz erantzungailu automatikoa martxan jarri ondoren.



Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Daniel Merino pintorearen lanak ikusgai daude Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalaren aretoan, Garcia Castañon kalean. Bodegoiak eta konposizioak ikus daitezke urtarrilaren 31a arte. 19.30etatik 21.00etara astegunetan, eta jai egunetan 12.30etatik 14.00etara dago zabalik.

Antonio Fava aktore eta maskaraegile italiarraren irrizko maskaren erakusketa ikusgai dago Nafarroako Museoa urtarrilaren 27a arte. Nafarroako Antzerki Eskolak Comedia dell'artearen inguruan prestatu dituen ekitaldien barruan dago erakusketa hau, eta bertan 30 maskara desberdinak ikus daitezke, hala nola egiteko erabiltzen diren bozetoak eta zurezko moldeak ere.

Jose Luis Otxoa Beñain eta Alicia Portillo Chocarro artisten erakusketa zabalduko da gaur, urtarrilak 15, Iruñean, Lan Kide Aurrezkiak Sarasate Ibilbidean duen aretoan. Bertan, bi artista hauek ehungintzaren artisautzan eta mihisez egindako lanak ikus daitezke. Datorren urtarrilaren 31a arte iraungo du erakusketa honek.

IKASTAROAK




Fondoko eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a bitartean, Larraungo udalak antolatutakoak. Orduetgia 9,30etatik

Oporroak behin pasata, Nafar Mendizale Federakundeak asteburuko bere ibilbideei ekin die berriro ere, eta iganderako Canfrac (Huesca) aldeko ateraldi gogor samarra prestatu du. Txangoa, beti bezala, goizeko 7etan aterako da Iruñeko autobus geltokitik, eta izena emateko 10 78 48 telefonoa deitzea baino ez duzue.

Canfracen bertan, Aragoa ibaiaren gainean dagoen zubi txiki bat zeharkatuz hasten da bidaia. Izugarriko desnibela gainditu beharra dago, mila metrotakoa, eta gauzak patxadaz hartzea da komenigarriena. Haste-hastetik ekin behar zaio igotzeari. Berrehun metro igo ondoren, trenbidea zehakatu du, eta aurrerantzean amildegi ederra azalduko zaigu begien aurrean, Ip izeneko.

Basoa eta harrizko hormak gure aldean, 1.600 metrotaraino pinadiak izango ditugu lagun, baina hortik aurrera goimendiko sistrak eta belarrekin egingo dugu



topo. Zirkoa zabaltzen hasiko zaigu, eta berarekin batera, mendi zorrotzak: Pala de Ip, Punta Ezkarra, Collarada, eta abar. Pixkana-

ka ere bertan dagoen ibona azalduko zaigu, eta baita aterpe zaharrek ere, lakuaren presa eraikitze-ko egindakoak.

deentzat 8.500 pezetan emango dituzte, eta besteentzat, 9.500 pezetan. Era berean, fondoko eski ikastaroa ere eskaintzen dute, Belagoan, Erronkariko Eski Eskolaren laguntzarekin. Lau ordu eguneko hiru igande jarraitetan.

autodefensakoa, berriz, arratsaldez bakarrik. Izena emateko Andreak Navarrerria kaleko 15. zenbakian duen egoitzara jo behar da.

Autoestjima. Autodefensa eta Yoga eta Erlaxapen ikastaroak antolatu ditu Andreak datorren hilabeterako, otsailaren hasieran hasiko baitira. Azken biak goizez eta arratsaldez emango dituzte,

MENDI IRTEERAK



Belagoa-Arette ibilaldia antolatu du Sakanako Mendigoizaleak taldea datorren igandera-ko, urtarrilak 17. Irteera goizeko 6.00etan izango da, Olaztitik.

Prezioak hauexek izanen dira: helduentzat 900 pezeta, eta besteentzat, 16 urte bitartekoentzat, 400 pezeta. Ateraldiaren arduradunak Miguel Ulaiar eta Andoni Gabirondo izanen dira.

BESTELAKOAK



'Kontuz Tibetarrekin. Sisha Pangma (8.026 m) izeneko diapositiben proiektzioa eskainiko du gaur, urtarrilak 15, Nafarroa Kirol Elkarteak. Diapositibak Belen Eguzkiza eta Eugenio Gorrotxategirenak dira, eta biak bertan izanen dira azalpenak emateko. Emanaldia arratsaldeko 8etan izango da, Elkartearen Jarauta kaldeko egoitzan.

Nafarroako XXII. Bertsolari Txapelketa antolatzen hasi da Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkarteak, 1993ko udazkenean ospatuko den Euskal Herriko txapelketarako Nafarroako ordezkariak aurkeratzeko. Txapelketan partehartu nahi dutenek urtarrilaren 22a baino lehen eman behar dute bere izena Elkartearen, telefono honetara deituz: 228232.

ZINEMA



'El silencio de los corderos' izeneko pelikula eskainiko dute bihar, urtarrilak 16, Lizarran, Cinefilos Anonimos eta Udaleko Gazte Batzordeak antolatutakoak. Emanaldia arratsaldeko 8.00etan izanen da Julian Romano Kontserbatorioko aretoan.

ERRAN DUTE

ASTEKO PERTSONAIAK

ADI !

6

Nafarroako populazioaren % 3,5 ludopata da».

Chelo Erce
Ludopaten Elkarteko burua

«Drogazale bat ez da ondarra, ez txustarra».

Iñaki Alberdi
Giza Helburua elkarteko kidea

«Arbitroaren bi ostikoak saihestu nituen. Harrapatzen banau, bertan jota».

Eloy Medina
Futbol jokalaria

«Penaltia jaurtitzekoan, alde egin zidan baloia».

Jan Urban
Osasunako jokalaria


Kike Elizalde



Erremontista

Kike Elizalde eta Jon Eizagirek irabazi zuten pasa den larunbatean Binakako Erremonte Txapelketa, bi tantuz. Hasieran gauzak erraz jarri zitzaizkien irabazleei, baina Altuna eta Aizpuruk izugarriko buelta eman zioten markagailuari eta hogeita hamazortzina berdindu zuten partidua. Kostata irabazi zuen altsasuarrak bere laugarren txapela. Lauren artean bera zen helduena eta lorpen gehien dituen, banakako txapelketa ere irabazi baitu behin baino gehiagotan. Zerbaitengatik esaten da Elizalde dela koadroko aurrelari onena.

Javier Aiestaran



Bakaikuko alkatea

Soldadutzari uko egiteagatik Sepaitu zuten atzo Iruñean Javier Aiestaran gaztea, intsumisioa izateaz gain Bakaikuko alkatea dena. Hau izan da intsumisio izateagatik epaitzen duten lehen alkatea eta lege berria ezarri diote, beraz, fiskalak bi urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra eskatu zuten bere aurka. Epaia oraindik ez da ezagutzen, baina kartzela zigorra ezartzen badiote, ezingo du bere kargua bete, eta Bakaikuko alkate gabe geratuko da. Bertako Udalak aho batez erabaki du kargurako ezgaitzeari kasurik ez egitea, eta alkate berarekin segitzea, ahal den neurrian behintzat.

Don Juan de Borbon



Bartzelonako kontea

Nafarroako Gobernuak joan den astelehenean erabaki zuen Don Juan de Borbon Espainiako Erregearen aitari Nafarroako Urrezko Domina ematea. «askatasuna, demokrazia eta adiskidetze nazionalaren alde egin duen lanagatik, eta gure eskubide historikoen onarpena eta nafarren kontzientzia patriotikoa eta forala indartzeagatik». Alli lehendakariak eman zion berria Bartzelonako konteari, eta honek bere poza agertu zuen. Jakina denez, pasa den irailtik dago Espainiako Erregearen aita Iruñeko Klinika Unibertsitariar ingesaturik, duen gaitza tratatzeko.

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



HERRIZ BERRI



Kaskante



LIZARRAn, aurrerantzean, bi aldiz pentsatuko beharko dute hiriko ondasunen kontra erasoak egiteko ohitura ohi dutenek. Jose Luis Castejon bertako alkatearen aginduz, joan den igandean Los Llanoseko pasealekua garbitzen aritu ziren Errege egunean sortutako istiluengatik atxilotutakoak. Egun hartan, eta Santiago plazan zerbait marrazten ari zirela, Udaltzaingoak bost gazte atxilotu zituen, eta alkateak garbitze lanak paratu zien zigor gisa. Aurretik gertatutako beste istilu batean, erazitako zuhaitz bakoitzeko hiru landatzera 'zigortu' zituen alkateak Leringo hiru gazte.

ARIZKUNgo 'Elkartasuna' aldizkariaren 104. aleak argia ikusi berri du, Baztan osoko informazio eta berri anitzekin. Izan ere, bailarako argitalpenik zaharrena da 'Elkartasuna', eta azken alean eskolako mapa berria, Juan Eraso Baztango seme kuttuna eta alkate berrien hauteskunderi buruzko erreportaiak dakartza.



Iaz Iruñeko katedralean kabia paratu zuen amiamoko bikotea.

JOXE LACALLE


Urte ona amiamokoendako

P. U. / IRUÑEA

Kaskante da Nafarroako amiamoko zuriarendako tokirik gogokoena, Landazuria Erriberako talde ekologistak 1992an zehar egin duen azterketaren arabera. Bertan sei bikotek paratu zuten kabia iaz, aurreko urtean baino bi gehiago, hain zuzen ere. Hori esanguratsua bada ere, Nafarroak, oro har, 62 bikote jaso zituen iaz —gehienak Erriberan—, eta horrek baieztatu egiten du azken urteotan sumatu den gorakada, neurri handi batean talde ekologisten lanei esker.

Landazuriak egindako koadro batean antzeman daitekeenez, amiamokoa franko gutxitu zen 1960 urtetik aurrera. Orduan 79 bikote izan ziren lurralde foralean, eta 1984ean 44 baino ez ziren agertu. Hortik aurrera, berreskurapen nabaria izan da urteotan, eta aurtengo datuek, Espainiako Ornitologi Elkartearen laguntzarekin egindakoak, baieztatu baino ez dute egiten joera hau.

Erribera da urtero eliza eta zekildorreen teilatuak betetzen dituzten txori luze eta ezagun hauendako helmuga Nafarroan. Eguraldiak, ibaiek eta janari hurbil eta ugariak, inguru nekazarria izanik, aproposa oso —ez hobereena ordea— egiten dute Errioxakoarekin muga. Hala ere, kabia asko izorratu ziren urteetan, eta



Nafarroako ale gehienek Erribera dute helmuga.

ibaien indusketek eta beste kalte ekologikoei beste eremu batzuetara —Errioxara bereziki— bultzatu zituzten amiamokoak. Horregatik Landazuria talde ekologistak kabiak berreskuratzeari ekin zion herri frankotan, eta aurten bukatutzat eman du lana, zeharo finkatuta daudelakoan.

TUTERAN BOST BIKOTE Taldeak azpimarratu duenez, eta aipatu Kaskakantez gain, San Adrian izan da hoberako aldatarik nabariena izan duena. Bertan eutsi izan zaie 1991ko lau bikoteei, eta bikote berri batek kabia paratu zuen iaz eliza berriko teilatuan. Tuterara ere bost

bikote azaldu ziren iaz, eta bat berria izan zen. Horren kabia katedralaren gainean aurkitu zuen taldeak.

Bianan, 1991ko kabi artifizialean ez da bikoterik azaldu, baina deslai dabilen amiamoko frankok bisitatu dute. Alesbesen, bestalde, 60ko hamarkadan izan zen beste kabia bat ere berreskuratu dute.

Espezie hau berreskuratzeko kanpainaren barruan eta, bostgarren urtez, zeuden kabien finkatze lanak egin ditu taldeak, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin. Honen helburua da erortzeko arriskuak izan dezaketen kabiak ongi eustea, eta aurten Lodosa eta Traibuenasen egin izan dira. Azken honetan kabia lurrera bota behar izan zuen taldeak, 300 kilotako pisuarekin erortzeaz baitzegoen. Lodosan, bestalde, kabia erori egin zen, eta ondoren oin metalikoa paratu zen.

Orain aurkeztutako txostenaren barruan ere azpimarratzen da taldeak Alfaron (Errioxa) egindako lana, bertan aurkitzen baita eraikin bakar batean talderik handienetakoa: 60 bikote. Bertako Gobernuak berrikuntza lanak egiteko asmoa zuen eta Landazuriak, bertako zenbait talderen laguntzaz, informazio eta salaketa kanpaina egin zuen, eta lanek ez dute aurrera egin.



AZPIROTZ ez da etxea erosteko tokirik aproposena, ez behintzat autobideko lanak amaitu aurretik. Bertan izaten diren eztaiek direla eta, frankotan herriko etxeetako teilatuaren erori dira harri puskak, eta duela gutxi beste zulo bat egin zuten bertako etxe batean. Arazoa ez da berria, iaz ere 500 kiloko harri batek herriko urtegia puskatu baitzuen, baina harriztekoa da orain arte inolako neurririk hartu ez izana, bide berrikerik ere harri puskak edonon sakabanaturik ikusten direnean.

TUTERAko Caritasek bere kezka azaldu du ohar publiko baten bidez herriaren biztanle ari den etorkinen kontrako giroa dela eta. Erriberako hiriburuan izandako azken gertaerak oso egoera latzean utzi dituzte bertako etorkinak —eta bereziki Magrebekoak—. Izan ere, zenbait lapurreta izan da azken egunotan zelai inguruan dauden etxetxoetan, eta denak magrebiarrei leporatu zaizkie. Caritasek azaltzen duenez, «epaitu baino lehen ere erruduntzat jotzen dituzte askok», eta etorkin hauek pairatu behar duten egoera latza gogorarazten dute. «Denon erronka da Tuteran abegikorra, irekia eta elkartasuneko sortzea», dio oharrak.



Orreagako aterbearen sarrera.

A. BARANDIARAN

Orreaga, errromesezain

Erdi Arotik Santiagora joateko ate nagusietakoa, Orreagako ostatu eta aterbea milaka errromesen abiapuntu edo helmuga ezinbestekoa izango da Donejakue Urte honetan. Iaz sekulan baino bisitari gehiago izan zuten Ibañetaren magalean dagoen eraikuntza zaharrean, eta aurten kopurua aisa handituko delakoan daude bertan.

● Iruñera Frantziako atetik sartzen da Donejakue Bidea, eta Carmen kaletik, Santo Domingo, Udaletxea, San Saturnino, Basotxo, Gotorlekua eta Nafarroako Unibertsitatea zeharkatzen ditu, ondoren Zizur Txikira joateko.

Baina Orreagaz gain, Donejakue Nafarroan dituen bi adar nagherrietan ere somatuko da urtea, etaako Gobernuak duela gutxi amaitu de osoko seinaleztapena. Halaber, lan zehar izango dira lurralde foraleortan hain garrantzi handia izan zuen inguruan ekitaldi franko.

● Izuratik ateratzen da ibilbide ohizkoena, Garruze, Donapaleu edo Haranbeetik pasa ondoren, Hortik, Uxiat, Galtzetaburu, Lakarra, Iriberrri eta Donazaharre zeharkatzen ditu, Donibane Garazira heltzeko.

Urte ekitaldiz oparoa


herri bakoitzaren ezaugarri historiko eta kulturalak ere azalduko dira kartel erakargarrien bidez. Hain zuzen ere, garrantzitsuena Bidearen inguruan dauden hainbat ondare historiko eta artistikotan egin beharreko berri-tze lanak izango dira, dudarik gabe. Leireko Monastegia, Iruñeko Katedrala, Zangozako Santa Maria Eliza, Torres del Rioko Hilobi Santua, Orreagako Itzandegia etxea, dira horien artean garrantzitsuenak, eta egitasmoa zenbait urtetan luzatuko bada ere, aurten bostehun milioi pezeta inguru gastatuko dira bertan.

BIDEA ONDASUN PUBLIKOA Honekin batera, Nafarroako Gobernuak ondasun publiko izendatu nahi du Bidea,

juridikoki babestu ahal izateko. Horretarako mugak zehaztuta daude dagoeneko, eta aurten lurren desjabetzeari ekingo zaio. Berritze lanez gain, eskeintza kultural anitza izango da aurten. Ohizko aste kulturekin batera —antzinako musika, Erdi Aroko ikerketak— Nazioarteko Mintegia burutuko da otsailen Orreagan, ospetsu askoren partaide-tzarekin. Madrilera Kazetari Europarraren eskutik, 'Donejakue Bidea, Europako bidea' izenburupean, politikari, jakintsu, eta aditu franko, zenbait pertsonaia —esanguratsuekin batera — Felipe Espainiako Printzea, Federico Mayor Zaragoza UNESCOko burua, Catherine Lalumier Eu-

ropako Kontseiluko Idazkari Nagusia, Santiagoko artzapezikua eta zortzi lurralde autonomotako lehendakariak tartean— bilduko dira lau egunetan Bidearen inguruko gai ugari aztertu eta ezagutzera emateko. Bestalde, Nafarroako Bidearen Lagunak izeneko elkarteak, ohi bezala, aste kulturala antolatuko du apiril aldera, eta Iruñeko udalak erakusketa bat ekarriko du Iruñera. Hiriburua egun oso bat izango du Santiagoko ekitaldien barruan, oraindik zehaztu gabe dagoena.

● Gares da, Orreagarekin batera, funtsezko topaleku Donejakue Bidean. Bertan elkartzen dira bide garrantzitsuenak, eta Santiagoraino ez dira bananduko.



A. BARANDIARAN / ORREAGA

«Datorrenarekin beldur gara. Iaz, inoiz baino errones gehiago izan genuen, eta aurten atera kontuak nola izango den». Bixente Hernandorena apaiz lekunbertarrak denbora gutxi darama Orreagan, Goizuetan ia bizitza osoa egon eta gero, baina hilabete gutxitan ederki asko antzeman du Orreagaren garrantzia Donejakue Bidearen barruan. Apostoluaren hilobia aurkitu zutenetik, XI. mendetik bertatik, Santiagora peregrinazioak eragin erlijioso ezezik, kulturala eta komertziala ere handia sortu zuen ikutu zuen toki orotan, eta bidearen er-tzetan eraiki ziren baseliza, ospitale, ostatu eta sare osoa.

Europar zehar Galiziako hiria helburu zuten bideak ugaritu ziren, eta nagusietatik hiru —Mediteraneokoan izan ezik, horrek Jaca aukeratu baitzuen Pirinioak zeharkatzeko—, Nafarroa Beherko Izura herrian elkartu ziren. Donibane Garazi eta Luzaidetik, bidea Ibañetara heltzen zen eta bertan, 1127an, Iruñeko gotzai-

nak ospitalea eraiki zuen, ondoren bide osoko punturik nagusietakoa izango zena. 1132an —eta eguraldia gogorra zela eta, hain segur— oraingo tokira, habestuagooa, aldatu zuten. Mendetan zehar Orreagaz areagotu egin zuten bere eragina, eta zenbait garrantzitsuenetakoa izango da, dudarik gabe.

4.580 errones igaro ziren iaz ostatuak, eta gau batzuetan berrehun bat lagunek bilatu zuen aterbea bere horma zaharren artean. Jauzia izugarria izan da, ohizko kopurua bi milakoa —«hiru mila inguru urte berezietan»— izan baita orain arte. Kontuan harturik ostatuak, berez, 75 lagunendako toki duela, apaizen ardura ulertzeko da. «Askotan jarri behar izan

dugu jendea lurtean, lotara, eta aurten zazpi mila inguru espero dira». Nafarroako Gobernuak Itzandegia bertako etxe arraildua —behialako ospitalea— urte hasierarako berritzeko asmoa zuen, baina lanak duela hilabete t'erdia hasi dira, eta udarako ez omen dute bukatuko. Bertan ehun bat lagunendako ostatuak paratzeko asmoa zuten Orreagan.

Erdi abenturazale, erdi kirolari, egungo erronesak ez dauka zer ikusi handirik Erdi Aroan bi-daia egiten zutenekin. Orreagara heltzean bidaia-aren zioaz galde-

ratxo batzuk egiten zaizkio erantzun nahi duen orori. Erlijioari buruzko laukitxoan, hamarretik zortzik «inolako erlijiorik ez» erantzuten du, eta zio kulturalak eta kirolarekin lotuak erruz irakur daitezke. «Izugarria da —dio Hernandorena—, baina Alemania edo Frantziatik datozen gehienek erlijioa atxikitzen dute. Espainiakoen artean, ordea...».

Lehen agustindarren eskuetan, gaur egun Iruñeko gotzainaren ardurapean dago Orreaga, eta apaizak dira bertakoak. Egungo gizartearekin lotura aurrekoek baina handiagoa dute, beraz, baina oraindik ez dute galdu etortzen diren askorekin harritzeko ahalmena. «Gaztetxo batzuk etorri ohi dira zer ordutan ixten genuen galdezka, diskotekara joateko eta!». Horregatik, erronesen artean ezaguna den esaldia ahozkatzen dute maiz: 'Horrek bidea egin du, baina ez da bidearen baitan sartu'.

Izan ere, bideak badu 'zerbait', kirola eta turismo hutsetik harantzago eramaten duena: norberaren baitara sakontzea, apika; izpirituak kutsu «ia antzemanetza», diotenez. Santiagora heltzen diren artean, 'aberatsa' eta 'ahazteztina' dira gehienbat entzuten diren laudorioak, eta Orreagan ere datorrenaz ohartzatzen saiatzen dira. «Joan den astean mediku bat heldu zitzaigun —azaldu du Hernandorena— budista bera. Eguneroko mezan erronesentzako ematen dugu bedeinkapen berezia, eta bera ere azaldu zen elizara. 'Harrituta gelditu naiz' esan zidan, eta nik erantzun: 'Oraindik hasi besterik ez duzu egin, ikusiko duzu aurrerantzean'».

mintzoak

● Pozez kabitu ezinik dapo. Aresti arte, Lankide Aurrezki Kutxak ezik, ez zion inork gutunik igortzen. Noiz behinka eta inongo atarramendurik gabe, aldameneko barazki dendak halako fotokopia zatar bat azek azken bolada honetan beheruntz jo dutelako berria emanaz. Baina ezustean bi maitale ditu, bi gutun igorle.

Bata bezain sutusia bestea fina da, bata ezin politagoa, bestea polit ezinagoa. Bati ari zaionean, besteari dagokio. Bata quasi une fantasia, bestea ezin bestez, premiaz, loria bera.

Eta nola harri arruntetatik bait

de preziatuetatik baino frankoago, hala hauek bezalakorik hiri honetan beste bi inola ere ez. Bata euskal edertasunaren erakusgarria, bestea Parisen jaioa eta munduan umotua.

Eroski eta Leclerc dute izena eta ez daki noren etxera joan behar ote duen Gauona igarotzera. Batek idazten dio zortzi Magedesa ontzitako multzoa 21.990 pezetatan saltzen dizkiola esanik, besteak Dataum izeneko plafon halogena 9.990 pezetatan. Bietan bederatziz zenbakia da nagusi, eta ez daki noren etxera joan ote Gauona igarotzera.

Aresti arte, ez zion inork gu-

tunik igortzen, eta orain bapatean bi maitale ditu, biak batera, eta gixajoa bere burua ezin erdituz, etxean geratu zen. Gabon Zahar balitz, pentsatu zuen, Gabon Zahar balitz, San Silvestre lasterketa korrituko nuke, zortzi kilometro eta gero abarrikaturik ohean geratu. Baina Gauona da, eta gauonetan ez zaio sekula deus ere onik gertatu, eta horren beldur ez du ez Eroskirekin ez Leclerc-ekin aritu nahi.

Tristuraz kabitu ezinik dago. Bere bihotza eman die, bere barrungo gogo, opari gisa, tori, hona hemen nire bihotza, hona hemen nire gogo. Euskaldunari

esan dio, nik zu maitiago, txoriek bere umeak baino. Frantsesari au clair de la lune, mon ami Leclerc, prête moi ta plume pour écrire j'ai t'aime. Haiek dirurik besterik ez zioten eskatzen, eta berak bere bihotza, bere gogo eman behar. Ordu erdi batez zeureak izan zitezkeen, eta orain zure sentimenduak tartekatzeagatik den dena izorratu duzu, akaboa maitasunezko bi igorle horiek. Bost sosesetan bazenituen, bi maitale zeure oinetara, bata bezain polita bestea liraina, eta horren orde, zer ote duzu, bost sos Aurrezki Kutxan.

Pozez kabitu ezinik Fortuna-

ren kopetan izan zara, eta pena kabitu ezinik haren oinetan, eta jakin beharko zenuke, bizitza putata bat dela, eta ez duzula ez haren kopetan ez haren oinetan. Bakar-dadea ez da amodioaz akatzen, diruz baino. Gauona igaroa da dagoeneko, eta gure gixajoz irri egin nahian edo, denok gau horri gauona deritzogu.



Gazteendako Zokoa

Iragana berpiztu ahal izan zuten

MIKEL REPARAZ

Hasieratik jarki nintzaion gure Pankraxio eta Raimunda aitona-amonak Soria edo delako Gaztelako hirira bidaltzeari; banioen nik han ez zirela gustora biziko. Baina, noski, nori ardura zaio hamar urtetako haur batén aburu lainoa?

Ni neuk erantzun nuen igandeko telefono dei goiztiar hura; ohetik jaiki eta telefono gorri dardarkorrari nagiki hurbildu nintzaion, nor bestea baino lotia-goak diren nire gurasoen ohetik mugitzeko inongo asmorik ez zutela ikusirik. Entzungailua belarrira iratxeki eta «baai?» nar-kar batekin eman nion hasiera kablearen bestaldean zegoen gizasemeak inplizituki eten nahi izan zuen elkarrizketari. Gaztelaniaz mintzatu zitzaidan gizonak nirekin hitzegin nahi ez zuela berehala antzeman nion, eta hari ezer esan gabe, aita telefonora deitu nuen.

Banekien nik azkenean halako zerbait jazo behar zela, banekien nik Pankraxio eta Raimunda han ez zirela gustora bizi. Igande goiz hartan nik erantzun nuen telefono deia Soriako Goardia Civilaren koartelek zetorkigun, eta haren egilea Bonifacio Perez tenientea zen. Ezinezkoa zen ihardun hartatik ezer onik ateratzea, eta halaxe izan zen; senar-emazte agur-reek 'Zahartzaroaren Lorategitik' alde egin zuten. Hura ez zen Pankraxio eta Raimunda beraiek presondegi zeritzoten zaharretxetik ihes egiten saiatzen ziren lehenengo aldia, baina besteetan ez bezala, aldi hartan ihesbidea azkeneraino jarraiki zuten.

Ihardunaldia konputagailu baten aurrealdean ematen duten gizaki estresatueta ohizkoa denez, nire aita bizi urduri jarri eta segituan Soriarantz irten behar zuela argitu zigun. Amak, pausatuki, berarekin joateko nahia azaldu zion, eta lipar batetan pentsakor egon ondoren, hura baietsi zuen. Hau ikusirik, nere amaren izeba den baina nik



neuk 'izeba' deitzen dudan atso zahar berritsuaren etxera bidaliko nindutela ondorioztatu nuen, baina, neure harridurarako, ez zen halakorik gertatu, eta gogotik inoiz iraganen ez litzaidakeena jazo zen: aitak Soriara joan nahi nuenentz galdetu zidan. Ez dago nire erantzuna aipatu beharrik.

Bazkaldu eta berehala ekin genion bidaiari, gure Renault bere metaliko zaratsuan Iruñea atzean uztea lortu genuelarik. Aspaldian gure bizilekutzat dugun hiritik at, autobidean sartu eta Erriberako paisaia gogaikarriak eragina, loak hartu ninduen.

Nere aitaren gurasoak, istilu guzti haren protagonista bakar zirenak, Gipuzkoako mugari atxekirik dirauen baina Sakanari dagokion baserri batetan eman zituzten euren bizitzak, haien semeak bidegabeki han jarraitzeko gai ez zirela erabaki zuen arte; orduzkerok, bi agureak Sorian dagoen zaharrendako ospitale psikiatrikoan zeuden, Peñafiel doktoreak 'falta de riesgo' delako zerbait diagnostikatu omen zien eta. Jadantik, aitona Pankraxio jaio zen baserria oso egoera txarrean zegoen, eta pixkanaka gainbeheratzen ari zen. hala ere, bisita egitera joaten gintzaizkienean, aitona noizean behin hara joateko eskatzen zi-

dan, eta amona Raimundak bere arrosoan kima beharrean egongo zirela oroitarazten; gaxoari jada arrosodori ez zela ez nion inoiz esaten, ordea. Elkarrizeta horiek nirekin izaten zituzten soilik, aitarekin hortaz mintzatzeko ausartuko ez balira bezala. Behin, baserrira itzultzeko asmoarekin zebiltzala kondatu zidaten, leku hartan irrigarri ikusten bait zituzten euren buruak, ero artean, eta baserrian hilko zirela zin egin zidaten.

Arratsaldeko zazpiak aldera izango ziren gure helmuga zen hiriko inguruetara iritsi ginean; ordurako, udazken guztietan legez, ilun zegoen, eta kotxetik kanpoko giroa nahiko hotza zen. Nik begiak irekitzerako, 'Zahartzaroaren Lorategiko' eremu laburreko parkingean ari ginen aparkatzen, eta gure zain zeuden bi gizon hurreratu zitzaizkigun. Haietako bat Peñafiel doktorea zen, eta bestea, ezagutzen ez nuen arren, Perez teniente zela igarri nion, soinean zerman uniforme eta buruko trikornio beltz irrigarria ikusirik. Kotxetik irten eta aldiunerik galdu gabe, eraikineko sarreran gelditu ziren mediku, teniente eta gurasoak, elkari benazko keinu kezkatiz begiratu. Hitzegin zuten bakarra Bonifacio Perez

tenientea izan zen, aitaren noiz-behinkako galderak tarte. Perez tenientea uniforme ezertarako eranzen ez duten goardia zibil horietako bat zen, beti serio dabilzan horietakoa, eta bere seriotasuna bibote ileurdin haundi eta kokospe hanpatu batek errematatzen zuen.

Bilkura desegin eta gurasoak nigana itzuli ziren, niri so baze-gidaten ere, gogoetak beste leku batetan zeuzkatela nabarmentzen zelarik. Bonifacio Perezen ahotik ezer gutxi jakin ahal izan zuten zorigaitzeko gertakizun hari buruz. Pankraxio eta Raimundak larunbataren iluntzeko zazpirak aldera utzi zuten eritegia, segurtasun eragingailu guztiei ihes eginez, eta euren gauza guztiak beraiekin eramanean zituztelarik. Hala ere, tenienteak bere esku zeuden bilakuntza patruila guztiak zabalerazi zituela zioen, eta mementu hartantxe inguruak miazten zihardutela; baldin eta bi egunen epean agertzen ez baziren, ordea, bilaketari amaiera emango zioten, eta haiek hiltzat joko.

Aiton-amonekin ukan nituen elkarrizketa haiek zirela medio, neuk banekien haien jomuga zein izan zen; ez nintzen aitari hura erazagutzera ausartu, baina, berriro 'presondegi' hartara bihurtuko zituztela ezbaierik gabekoa bait zen.

Bi egunen epea jada igaro zen, eta gure Iruñeko etxebizitzara itzuli behar izan genuen, amak eta batez ere aitak itxaropenak guztiak galdu zituztelarik. Aita oinazatzen zuen etsipenaren lekuko izanik, ezin izan nion barren-barrenetik zetorkidan gogoari eutsi, eta hari Pankraxio eta Raimundari buruzko egi osoa kondatzeko erabakia hartu nuen.

—Baserrian daude— esan nien azken orduetan hitzik ere esan ez zuten aitari.

—Nola?— ihardetsi berak orduantxe esna berri denaren ahots nakarraz.— Zer esan nahi duzu horrekin?

Zetorkidan aharrari aurrez-aurre aurpegi emateko erabaki zurratu hartu nuen nik; haatik, aitari bat batean aurpegia argitu eta azken ahalbide hartan osoki sine-tsiz, aproba egitekoan ni neu berarekin eramanez, kotxean sartu eta bere jaiotetxerantz abiatu zen.

Udazkena zela kontutan hartuz, oso egun argitsua zegien, horregatik giroa epelagoa ez bazen ere; eta helmugatzat genuen baserrirantz hurbildu arau gehituz zihoan, aitaren itxaropenarekin batera.

Baserrira heltzeko azkeneko bihurgunea biratzean ere harizti erorkor gorriak hura begibistan utzi zigunean, izugarriko harri-menak ibilgetu gintuen. Hantxe zeuden, etxaguntzaren aurrealdean, inoiz ezertxo ere gertatu ez balitz bezala; Raimunda, etengabe kakara zegiten oiloz inguraturik, azkeneko arrosak biltzen ziharduen bitartean, Pankraxio baratzeko porruak jorratzeari zerraion, aspaldian baztertu zituen baserritar jantziak soinean zeramatzalarik. Aitak eta, biok ezin genuen gure begiek zekusatena sinetsi; denboran atzerantz egin genuela ematen zuen, guztiak —aiton-amonak barne—, hogei urte gazteago bait zirudien. Ezinezkoa zen hain denbora gutxian halako aldaketa nabarmena gertatzerik, ez zegoen azalpenik han jazo zenarentzat; bi aste ez bait ziren igaro azken aldirik han egon ginenetik, eta orduan guztiak egoera negargarrian zirauen. Esate baterako, orain lorapote loratsuz apainduriko leihoak erabat birrindurik zirauten orduan, eta Pankraxio ta Raimunda lanean zeuden eremu hartan ez zegoen baratzetik, ezta arrosodori ere, guztia sasiek estaltzen bait zuten.

—Egunon!— esan zuen Raimundak, bere iharduerari utzi eta nigana zuzenduz.— Ederki zaindu dizkidak arrosoak!

—Baina...— esatera iritsi nintzen, baina aitak ixilarazi ninduen, keinu antsikabe batez.

Jenero Xumekoak

Villares 'El chino triste'

Bihar mahaian, Margarita, bola zuria, beltza, eta koloredun aunitz. Urre gorritzko bola batek zulotik sartutakoan kax mehar bat sortu din, besteekin bildu delako seinalea, Margarita, besterik ez. Orain non ote? Paradisuan ote? Infernua akaso ote? Berdin dun, Margarita, berdin dun. Beste txanpon batekin jokua hasiko dun, Margarita, harik eta hi joan arte.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta berá

1. Iragarri (infin.)
2. Amatxi
3. Herri nafarra
4. Antzera
5. Problema

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
3	4	5		
4				
5				

N-59

1. Herri nafarra
2. Garbi
3. Errapea
4. Utz ezak
5. Ahal nuke

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
3	4	5		
4				
5				

1. Aranoko urtegi
2. Hegan
3. Herri nafarra
4. Ibil bedi
5. (Gip.) Bezala

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
3	4	5		
4				
5				

Zaharrak berri

Txapelik handienak ez du buru hutsik betetzen.

Zentzugabe beti buru huts.

Igantzi

Tabernariak mozkortia-ri:


—Zer, etxera joateko ordua, ezta?

—Bai, oraintxe etxera joan, nahiko lo egin, afaldu eta ohera.

Bizi Bizian

Azaroaz geroztik sexu heziketarako zentrua dauka Lizarrak. Psikologian lizentziatuak, beren kabuz aritzea erabaki zuten Marilen Zarralukik eta Toña Roak sexologia masterra bukatzean.

Horrela, heziketa eta terapia arloak lantzen dituzte Lukin jauregiko egoitzan. Lizarra aukeratzeko funtsezko arrazoi bat eduki zuten, bertan ez zela era honetako zerbitzurik eskaintzen alegia.



Sexu heziketa Lizarran bertan

ANA UNANUE / IRUÑEA

Lizarran ez zegoen deus, ez pribatua ez publikoa, eta hutsune hori betetzeko asmoz sortu zuten Fisios zentruko sexu zerbitzua. Haatik, aukera orain egin behar izanez gero, agian bestelako erabakia hartuko zutela aitortzen du Zarralukik. Izan ere, Cofes (famili plangintza eta sexu heziketarako zentrua) bat sortzeko ekimena hartu zuen Lizarrako Udalak iragan abenduan.

Eskaera aspaldidanik dator. Herri Batasunak duela lau urte proposatu zuen, baina ez zuen sozialisten sostengua lortu eta ekimena ezerezean geratu zen. Oraingoan, berriz, berrogei milioi pezeta bideratzeko aukera zeukan Udalak eta ez du beta gehiegirik galdu. Union del Pueblo Navarroko zinegotzien iritziairen kontra, onespina eman zitzaion Cofesari. Calixto Aiesa Osasun sailburuak ez zuen bere nahigabea ezkutatu eta Lizarran horrelako zerbitzurik ez zutela behar esan zuen.

Zarraluki ez dago batere ados: «Ezer ez baduzu eskaintzen, ez dago eskaririk, noski. Beharra egon, badago, eta demanda eskaintzen duzunaren arabera sortzen duzu». Berri horrek beren zerbitzuak egokitzera behartuko dituela uste du Zarralukik, eskaintza berbera bikoizteak ez baitu inolako zentzurik. Dena dela, Cofesan gainezka egoten dira terapian eta arlo horretan bertan zeregina izango dutela iruditzen zaio.

KASU GEHIENAK IRUNETIK Gainera, orain arte laguntza eskean joan zaien jende gehiena Iruñekoa zen. «Harriduta geratu gara, zeren eta Iruñean antzeko zerbitzu asko daude, pribatuak zein publikoak», dio Zarralukik. Pentsatzekoa da, beraz, sexuaren inguruko tabuak indarrean daudela oraindik eta jendeak anomimatoaren babesa biltzen duela.

Era berean, esku artera iritsi zaizkien kasuak nahiko «zailak eta gogorak» iruditu zaizkio. Izan ere, sikologoarena joatea estatubatuarren ohitura xeblea dela uste badu jende askok, are xebleago sexologoarengana hurbiltzea. Ondorioa begibistan dago, gehienek zeharo lur jota sentitzen direnean bakarrik ematen dutela urrats hori.

Jendearen jarrerari dagokio-



Lukin Jauregia dute egoitza (goian). Eskuineko argazkian Marilen eta Toña.



SONIA SALSAMENDI

Jendea errezeta bila joaten omen da: «Berehalako erantzuna nahi izaten dute. Oso zaila egiten zaigu itxaropen faltsuak haustea eta berriro etortzeko konbenzientzia».

nez, normalean «errezeta bila» joaten dira. Zarralukiren esanetan, «berehalako erantzuna nahi izaten dute. Oso zaila egiten zaigu itxaropen faltsuak haustea eta berriro kontsultara etortzeko konbenzientzia». Kontsultara bakarrik joateak ere ez omen du laguntzen, «arazoak normalean bikotearenak izaten direlako». Ba-

tzuetan, aholku eske doanak ez dio ezer esaten bere lagunari. Baina, Zarralukiren arabera, «aruntena errua bati leporatzea da. Arazoa birena izan arren, sintomak batek agertzen ditu eta besteak uste du ezin duela ezer egin, berak bakarrik konpondu beharko duela. Eta ez da horrela. Demagun norbaitek inpotentzia

Arazoak bikotearenak izan arren, gehienetan lagun bakarra hurbiltzen da: «Sintomak dituenari leporatzen zaio errua eta arazoa bere kabuz konpondu behar duela uste du besteak».

duela; ez da gauza isolatua, harreman modu baten ondorioa baizik eta, beraz, bien artean konpondu beharrekoa».

Zerbitzuen ordaina erabakitzeko kontutan izaten dute jendeak zer nolako diru sarrerak dituen. Prezioa ez da bera denentzat, errentaren arabera baizik.

TALDEEI EGOKITUTAKO IKASTAROAK Kontsultatik kanpo sexu heziketa lantzen dute gehienbat. Horrela, talde ezberdinei —hirugarren adina, gurasoak, irakasleak, ikasleak— egokitutako ikastaroak eskaintzen dituzte, euskaraz zein gaztelaz, eta beraiek mugitzen dira beharrezkoa izanez gero.

Zarralukik dioenez, emakume helduek izugarriko aldaketa fisikoak nabari dituzte menopausiarekin batera eta autoestima arazoak sortzen dira maiz. Horiei beren gorputzen zahartzea onartzen laguntzen diete. Gurasoekin, berriz, beren jokabidearen garrantziaz jabetu daitezela saiatzen dira. «Gaia ez aipatu arren, ohartu gabe, haurrek txikitatik barneratzen dute beren rola, sexuaren arabera. Kontratu inplizitoak familian hasten dira eta horiek aztertzen ditugu, gurasoek beraien erudia inportanteena dela ulertu behar dutelako».

Irakasleekin antzeko betebeharra daukate. Zarralukiren ustez, eskola mistoekin ez da bukatu sexu bereizketak: «Eskolak bereiztuak zirenean, neskei etxeko lanak erakusten zizkieten eta mutilei, berriz, soinketa eta horrelakoak. Gero, ikastetxe mistoekin denek ez dute denetarik ikasten, baizik eta ustez neskenak ziren ikasgaiak desagertzen direla. Asimilazioa izan da beraz, ez berdinketa».

Orañ arte eman dituzten ikastaro gehienak ikasleei zuzendutakoak izan dira. Gaztetxoak ez omen dira lotsatzen. Aitzitik, asko hitz egiten dutela dio Zarralukik. Hala ere, izugarriko informazio falta somatu du. Badi-rudi gaur egun informazioa denon esku dagoela, baina gazteen jaurdunaldietan zerbaitek huts egin duela adierazten dute: «Bai, harrigarria da, informazioa hori egon arren, ez dugu transmisio bide egokirik aurkitu nonbait. Bestela ezin dira ulertu hortik aditzen diren astakeriak. Lehenengo aldiak ez dela deus gertatzen, zutik eginez gero ez dagoela arriskurik... horrelako informazioa dute haur eta gazteek. Eta, hein batean, ez da harriztekoa, horien lehen iturria lagunak direlako eta, noski, beraiek bezainbeste dakite gaiaz».

Ikasketa egitasmo berriaren arabera, legez sexu heziketa eman beharko litzateke ikastetxe guztietan. Zarralukik ordea, ez du esperantza handirik.

Javier Lakuntza

.....Gaiteroa

Javier Lakuntza gaitero eta gaitagilea, Iruñeko Udaleko Txistulari eta Gaitero Bandako kidea da. Bizirik dagoen beste edozein gizataldean gertatzen den bezala, Nafarroako gaiteroen artean iskan-

bilak egon badaudela onartzen du Lakuntzak, eta aldi berean aurrera egiteko bideak bilatu behar direla. Berak jotzen duena gaita dela azpimarratzen du, eta ez dultzaina «erdalduna».

«Guk gaita jotzen dugu»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Noiz eta nola hasi zinen gaita jotzen?

JAVIER LAKUNTZA.— Anaiak eta biok ofizialki 1966ko San Fermintan jo genuen lehendabiziko aldiz. Ordurako hiru urte geroamatzan gaita jotzen, entseiatzen. Gure kasuan ikasteko bidea ikerketa izan zen, eta aurrerantzean ere horrela gertatu da. Beraz, ikerketa ez zaigu ezeren apaingarria izan.

EGUNKARIA.— Beraz, gaitak bi-zi izan duen momenturik latzean berpizkundera lortzeko lanean hasi zineten.

LAKUNTZA.— Arraroa ematen badu ere, XX. mendea hasi zene- tik gaitak behera egin zuen; izan ere, XIX. mendetik aurrera gaitaren munduan ez zen produkzio berririk egin. Gertatzen dena zera da, XIX. mendean amaieran gaitak osasun sendoa zeukala, eta hori dela eta 60 edo 70eko hamarkada arte krisialdia ez zen lantza izan. Garai hartan Euskal Herri osoan hiru gaitero bikote besterik ez zeuden, eta hirurak Lizarrakoak.

Gaitaren berpiztea beste gertakizun batzuekin batera gertatu zen. Garai berean Argia eta Urbeltz taldeek lan izugarria egin zuten dantzari, eta aspaldiko dantzak berreskuratu zituzten. Aldi berean euskara batuaren inguruko eztabaida bortitza gertatu zen. Euskal kulturaren barne haustura garaia izan zen hura, eta Gabriel Aresti guzti horren erdian zegoen. Gurea ere horrekin lotuta egon zen.

EGUNKARIA.— Gaita ala dultzaina?

LAKUNTZA.— Aspaldian zin egin genuen horretaz gehiago ez hitz egitea, baina beno, berdin dio. Guk jotzen dugun musika tresna Nafarroan betidanik gaita deitu da, zonalde erdaldun zein euskaldunetan, eta ez dugu uste beste era batean deitzeko arrazoirik dagoenik. Iruñeko Udaleko dokumentazio zaharrean, egia esateko, XIX. mendean erdialdera arte dultzaina hitza erabiltzen da, baina gure ustez garai hartako Udaleko idazkariaren inposizioa da hitz hori. Erdarakada bat dela uste dugu guk.

EGUNKARIA.— Gaitero eta dultzaineroen artean, gaitaren inguruan oro har, iskanbila franko gertatu dira Nafarroan. Zer dela eta?

LAKUNTZA.— UPN eta PP, PNV eta EA, miliak eta polimiliak eta bizirik dagoen eta aurrera egiten duen beste edozein gizarte- an gertatzen den bezala, gure artean ere iskanbilak daude.

EGUNKARIA.— Joan den asteburuan Oskorriekin aritu zineten Gaiarre antzokian. Ez da talde edo orkestra batekin aritzen zareten lehen aldia, ezta?

LAKUNTZA.— Zorionez Oskorri- ren 'Aita semea' lehen diskoan parte hartu genuen. Txiki eta Otaegirena gertatu zenean egin genuen hori 1977an. Gero Enrike Zelaiaekin ere lan egin genuen, Arabako dantzei buruz egin zuen disko batean. Pamplo- nesarekin ere lan egin dugu behin baino gehiagotan, disko bat gra-



Javier Lakuntza ere gaitagilea da Iruñeko San Anton kaleko tailerrean.

OSKAR MONTERO

batu genuen, eta duela gutxi kon- zertu bat eman genuen Gaiarren, Udaleko gaitero taldearen 50. ur- temugan. Lortu nahi duguna gaitaren esparrua zabaltzea da. Ohizko ekintzen osagarriak diren bideak bilatzen ditugu aurrera egin ahal izateko. Dianak jotzea, Erraldoiak laguntzea eta kaleji- ran aritzea ohizkoa da, eta are- tian aipatu ditudan ekintza osagarriak dira.

EGUNKARIA.— Ohizko ekintzez gain, egun zer egiten du Udaleko gaitero taldeak?

LAKUNTZA.— Gure taldeak, Udaleko Gaitero taldea izateaz gain, denetarik egiten du. Orain indar handiagoz ekin diogu irakaskuntzari Iruñean. Lehen herrietan aritzen ginen. Lizarra, Baigorri, Tuter, Zangoza, Irun- berri, Otsagi, Gares eta Artaxo- nan duela bizpahiru urte gaita es-

kolak zeuden. Orain Iruñean gau- za indartu nahi dugu, eta horretaz gain guk garatu dugun gaita ikas- teko metodoari azken ukituak eman. Lehendik bazegoen bat, baina 1968an egindakoa, eta za- harra geratu da mail guztietan. Ikerketan ari gara baita, duela gutxi liburu bat argitaratu ge- nuen, gaitak Iruñean izan duen historiari buruzkoa. Pedagogia, argitalpenak, ikerketa, denetarik egiten dugu, eta horixe da gure arazorik handiena. Guztia aldi berean egiten dugunez, ez dugu astirik ezertarako.

EGUNKARIA.— Egin ere egiten dituzue gaitak.

LAKUNTZA.— Bai. Bi gaita mota egiten ditugu. Musika tresna ba- koitzarekin, gutxi gorabehera, hamar ordu ematen ditugu, baina bata ezpel zurez egiten dugu, eta bestea, garestiagoa, granadillo

zurez egiten dugu. Ebano mota hori oso garestia da, eta horrek musika tresna garestitu egiten du. Ezpel zurez egindakoa 18.000 pezeta kostatzen da, eta bestea 34.000. Soinu aldetik ezberdin- tasuna ez da horren handia, eta hasten direnei merkeena erostea gomendatzen diegu.

Iruñeko Udalaren dokumentazio zaha- rrean, dultzaina hi- tza erabiltzen da XIX. mendean erdial- dera arte, baina garai hartako idazkariaren inposizioa da hitz hori. Erdarakada de- la uste dugu guk».

NOSKI JATOR

ZVLDI ERGA

